



**PAULINE GUELLE**  
ZUZENBIDE PUBLIKOAN  
DOKTOREGAI  
ETA IRAKASLEA

## Deskolonizazio botoa?

**K**anakiar herrialdean autodeterminaziorako bigarren erreferenduma iragarri du Frantziako lehen ministro Edouard Philippek, Kaledonia Berrian alegia. Beraz, 2020ko irailaren 6an –bigarren aldiko– Kaledonia Berriko biztanleek bozkatuko dutenean, autodeterminatuko ote dira edo beren autodeterminaziorako eskubidea bozkatu ahaliko dute?

Erreferendum hori 1988ko *Évènements* edo “gertakarien” ondotik erabaki zen. 1988an, FLNKS (Askatasunerako Fronte Kanakiar Sozialista) antolakundeko kide batzuek bahitu lau jendarme hil eta Frantziako Estatuak hemeretzi kanakiar erail ondotik Matignongo akordioak egin ziren. Negoziaketako bi aldeek herri kanakiarrarendako estatus berezia erreferendum “nazional” baten bidez bozkatu zuten. Hots, Frantziako Estatuak hautesle osoak zuen onartu –Metropoliaren absentsio masiboarekin– Kaledonia Berria Frantziako Konstituzioan txertatu titulu berria. Ondotik, burujabetza politikoaren erreferenduma betetzea planifikatu zen. *Nouméa*-ko itunean (1998), besteak beste, autodeterminaziorako galdea adostu zuten independentistek (FLNKS), independentziaren kontrako Kaledoniakoek (RPCR) eta Frantziako Estatuak. Hartan, tokiko erreferendum baten bidez onartu zen ituna (%72 alde). Hortik aitzina, auto-

determinaziorako hiru galdeketa antolatzen ahal zituzten: lehena 2018an iragan zen –independentistek galdua– eta heldu den urtean erreferendum berri bat deitu dute. Orotara, hiru aukera daude Kanakiar Herriaren burujabetza bozkatzeko; anitzetan Frantziak independentistei egin opari bezala ikusi dena. Aldi honetan, hautesle kidegoa ezberdina izan liteke: 1998. urtean Kaledonia Berrian bozkatzeko eskubidea zutenek eta 20 urtez lurraldean bizi izan direnek haien bozka eman lezakete.

Kolonizazio prozesu luze baten ondorioak ekarri zuen hautesle murriztu horren eztabaida. Nork bozkatzen ahal zuen? Errepublika osoak? Kanakiarrek? Kaledonia Berriko biztanleek? Azkenean, liskar horrek zentraltasun nagusia hartu zuen. Kolonizazioak lurraldeak konkistatzen ditu eta asimilatzen ditu; Kanakiar herria ez da salbuespen bat. Kasu honetan biztanleria –eta bozka– ez da urrundik ere errealtatearen ispilu bihurtzen. 2020an bozkek nekez lortuko du uhartearen deskolonizazioa. Horregatik autodeterminazio eskubidea eskubide bat da; eta ez gehiengo batek adosten duen prozesu bat. Estatu batek hala dela onartzen badu, ez luke negoziatzerik, eskubidea betearaztea baizik. Bestalde: gehiengoak gutxiengoaren burujabetza erabaki ote dezake? ●

## Zentrorik gabeko feminisemorantz?



**ITZIAR BARDAJI**  
GOIKOETXEA  
IRAKASLEA

**F**eminismoa Durangora argazki bat egitera joan zen. Hein batean, asimilazioaren arriskuaren aurrean eta ofentsiba patriarkal erreakzionarioaren aurrean indartsu egingo gaituen argazkia.

Erretratuan, *Euskal Herriko Jardunaldi Feministak* izenpera deituta sentitzen garenek osatzen dugun gorputz kolektiboaren forma ikusten da. Erdia potoloa du. Normaltasunaren masa zentro pisutxua. Bertan gaude emakume cis, natibo, zuri, euskaldunak, gaitasun fisiko eta mental estandar-dunak. Zentro-bazter zapalkuntza ardatzek operatzen dutelako, argazkia

ez dator bat euskal jendarteko errealtatearekin: marjinak oso mehetuta daude.

Eta halere, eta horregatik, jardunaldi feministen ahalegin eta apustua izan da sistemak bazter bihurturikoan arreta jartzea. Egitura berdina beste eskala batean erreproduzitu ez beste zerbait egin dezagun. Mamia ez da zer baizik eta nola. Eta zentrorik gabeko utopiarantz bidea egiteko, interesgarriagoa da marjinetan gertatzen dena. Abiapuntua, soilik abiapuntua: hitza eman, tokia utzi eta entzutea. Erronka: hau zintzotasunez egitea, *marjin-washing*-ik gabe eta autokonplazentzian erori gabe. ●